VITORIA GASTEIZ green capital

EJE Euskaldunentzako Jabetze Eskola

IAK Izaskun Arrue Kulturgunea

EUSKALDUNENTZAKO JABETZE ESKOLA

HAUSNARTU AHALDUNDU ARTIKULATU

Menpeko perpausa izateari uzteko langintzak

IZASKUN ARRUE KULTURGUNEA
2024-2025

Izen-emateak eta informazio gehiago:
iak.eus / ueu.eus

Babesle nagusia: Vital Fundación Fundazioa

Laguntzailea: Laboral Kutxa

Lazarraga Kultur Elkartea

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteizko Udala

Hedabide laguntzaileak: Talea berria radio vitoria Noticias de Álava Diario

UEU

GARIKOITZ GOIKOETXEA
Hizkuntzaren norabideak marrazten
2024-10-30

Euskaldunentzako Jabetze Eskola

PLAZA

Euskaldunentzako Jabetze Eskolaren aurkezpen ekitaldiaren ardura izan zuen Garikoitz Goikoetxeak. Bere hitzaldiaren hasieran euskararen biziberritze-prozesuak ikuspegi sozialetik gaur egun duen egoeraren deskribapen xehea egin ondoren, berehala jarri gintuen aurrera begira.

ZAZPI JAUZI

1. Joxean Artzeren "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik" esaldia buruan iltzatuta dugu euskaldunok. Baina noraino erantzuten dio gaur egun dugun erronka nagusiari? Euskaraz egiteko aukera duen gero eta hiztun gehiago dago, **baina aukera horiek errealak al dira?**

2. Goiko esaldiaren atzean, "erabilera-faltaren" diskurtsoaren hegemonia dago. Esku artean dugun auziari modu partzialean heltzea dakar horrek. **Presazkoa da diskurtso horren barruan gaitasunaren kontzeptua sartzea.** Euskara erabiltzeko gaitasuna ez da homogeneoa euskal hiztunen artean, ezta hurrik eman ere. Horrek eragina du erabileran.

3. Gaur egun, euskararen erabilera erosoa baino, euskararen erabilera ezerosoa da nagusi. Horrek zerikusia du norbanakoaren hautuarekin eta gaitasunarekin. Norbanako horiei euskara eroso erabili ahal izateko guneak eskaini behar dizkiegu.

4. Ondorioz, gaur egungo arazo nagusia ez da erabili nahi eza. Euskaldunok, aukera (erosoa bada, hobe) dugunean, euskaraz egiten dugu. **Gaur egungo arazo nagusia euskara erabili ezina da.**

5. Euskararen erabileraz ari garenean, asko **hitz egiten dugu hiztunen jarreraz. Baina hitz egiten al dugu interesaz?** Zer erantzuten dute hiztunek "zergatik eta zertarako hitz egin euskaraz" galdetzen diegunean?

6. Hezkuntza izan da eta da euskalduntze-prozesuaren gakoetako bat, eta, horren barruan, hizkuntza-ereduen sistema. Gaur egun **D ereduak funtzionatzen du, bai, baina D ereduan parte hartzen duten hiztunak aldatu egin dira.** Hori oso kontuan hartu behar da.

7. Bidegurutzearen irudia sarri erabili da euskararen biziberritze-prozesuak gaur egun bizi duen ataka deskribatzeko. Kontua da ez bakarrik gure gertuko ingurunea, mundu osoa ari dela aldatzen, oso azkar, gainera. **Ez gaude bakarrik hizkuntzaren bidegurutzean: bidegurutze askotan gaude.**

GOIATZ OIARTZABAL ETA MIKEL IRIZAR (Badalab)
Euskaraz hitz egingo da 2037an?
2024-11-27

Euskaldunentzako Jabetze Eskola

PLAZA

<u>Badalab</u> Hizkuntza Berrikuntza Laborategiko Goiatz Oiartzabal eta Mikel Irizar izan genituen Jabetze Eskolaren lehenengo saioan. Garikoitz Goikoetxeak, aurkezpenean, esan zigun mundua aldatzen ari dela eta euskalgintzak ezin diola horri itzuri egin. Goiatzek eta Mikelek bete-betean heldu zioten egiten duguna munduarekin konektatzeko moduari, eta etorkizuna aurreikusteko ariketa konstantea egiteko proposamena egin ziguten.

ZAZPI JAUZI

1. Gure egitekoa hau da: Etorkizunean euskara erabiltzen jarraituko dugula bermatzeko **galderak probokatzea**. Posible baita une honetan nahitaezkoak iruditzen zaizkigun galderek ibilbide laburra izatea, eta, guk uste baino lehenago, baliozkoak izateari uztea.

2. Galdera berri horiek sortzeko, **gizartea irakurri behar dugu behin eta berriz**, ikuspegi batekin: etorkizun desiragarri bat lortzea. Estrategiak egokitzen aritu behar dugu etengabe. Mundua abiadura handian ari da aldatzen: begira "globalizazio" eta "digitalizazio" kontzeptuek nolako eraldaketa jasan duten azken urteotan.

3. Demagun, euskarari begira ari garela, ondorengo auziak ditugula une honetan esku artean:

- Gazteek euskarazko ulermen unibertsala lortu dute. Eta badirudi horri buruz hitz egiteko gogoa dutela. Ematen diegu behar beste aukera horretarako?
- Euskal identitatea krisian dago. Non eta norekin pentsatu behar dugu horri buruz?
- Euskalgintza askotarikoa eta aberatsa da, baina egitura ahula du. Zergatik da hori?

Pentsamendua egoki eta denon artean garatzeko guneak behar ditugu.

4. Adimen kolektiboa da gakoa. Adituei begira bizi gara, eta autoritatea aitortzen diegu; hala ere, aditua autoritatea bada, beti egon behar du kolokan. Elkarrekin pentsatu behar dugu.

5. Adimen kolektiboa biderako guneak eratzeko egiturarik egokiena **gobernantza partekatuak** eskaintzen digu. Eta horrek esan nahi du gune horretan boterea partekatu behar dela. Teorian, badakigu boterea partekatzea zer den, baina praktikan utopikoa izatera iritsi daiteke. Izan ere, foro partekatu bat sortzeak ez dakar automatikoki boterea partekatzea. Erabakimenean eraginik ez badu, hierarkia mantentzen den seinale.

6. Adimen kolektiboak auzitan jarri behar du ia dena, eta nonbaitetik elikatu behar du. Horretarako, gure burua behartu behar dugu **aliantza inprobableak** egitera. Ez-ohiko lankidetzak sustatzera, eta horien zerbitzura espazioak, tresnak eta esperientziak jartzera.

7. Hona, adibidez, auzitan jarri beharreko gakoetako bat: **hitz zehatz batzuk erabiltzeko dugun moduak hitzek duten potentzialitatea murriztu dezakete.** Esaterako, hitz egin dezagun aniztasunaz. Euskarari begira ari garenean, eta aniztasuna aipatzen dugunean, tranpa egiten dugu sarri: beste hizkuntza batzuez aritzen gara automatikoki, eta "arrotz" hitza eransteko arriskua izaten dugu. Ondorioz, ahaztu egiten dugu gure hiztun komunitatearen barruan jada badagoela nahikoa aniztasun: askotariko hiztunak gaudela bertan.

ENEKO GARCIA.ANE LINDANE.ANER PERITZ Euskaldun anizkun–Transgresioa euskaraz. Publiko berriak euskararen aliatu

2024-12-16

Euskaldunentzako Jabetze Eskola

PLAZA

Etorkizunaz pentsatzeko, orainaz pentsatu behar da. Mundu aldakor batek errealitate konplexua dakar berez, eta bertatik bertara ikus dezakegu hori; egunerokoak eskaintzen digu, urrun joan gabe. Errealitate konplexua, anitza... hautsia. Aztertzeko eta eragiteko zaila, baina interesgarria. Eneko Garciak, Ane Lindanek eta Aner Peritzek, Euskaldunentzako Jabetze Eskolaren abenduko saioan, transgresioaz jardun zuten, hausturaz eta eraikitzeaz, eta hizkuntza gutxituen testuinguruetan dituen ondorioez.

ZAZPI JAUZI

1. Transgreditzeko eta arauak hausteko, sarri, ez dago ezer egin beharrik: garenak izanda bakarrik egin ohi dugu. Artea gorputz batetik egiten dela onartzen dugun unetik, gorputz horren araberako transgresio-maila eransten diogu sormenari. Beraz, **badira gorputzak transgresioan "erroldatuta" daudenak.**

2. Hala ere, **trangresioa ezin da modu esentzialistan ulertu**, edo printzipio modura hartu. Aldakorra izan daiteke: orain ehun urte apurtzailea zena gaur egun agian ez da izango; eta lurralde-eremuaren arabera ere apurtzaile izateko era ezberdinak egon daitezke. Indarrean zein arau sozial dagoen hartu behar da kontuan beti. Horrekin lotuta, transgresioak ez du zertan beti onuragarria izan. Gatazka ekar dezake, eta horri, normalean, beldur handia izaten diogu.

3. **Hemen, gune politizatuak** dira sormenerako espazio egokiak eskaintzen dituztenak. Baldintzarik edo araurik jartzen ez duten espazioek (adibidez, gaztetxeek) ematen dute bidea transgresiorako. Ondoren, beste zirkuitu ofizialago batean "balidatu" daiteke hori, edo ez. Probatzeko espazioak dira, eta bertara doan publikoak ere badaki hori, publiko konprometitua delako.

4. Sortzen ari garenean, **transgresioa lantresna modura ere erabili dezakegu.** Balio dezake, adibidez, publikoak bestela ikusiko ez lituzkeen gauzak ikusarazteko. Baina nola egiten da hori?
Euskarazko sormenaren testuinguruan beharra sentitu dugu betidanik produktu berri eta apurtzaileak sortzeko. Agian estrategia aldatu behar dugu: **produktu berriak sortu beharrean, sormen-lan hori gauzatuko duen jende berria behar dugu.**

5. Azken finean, aurreko puntuarekin lotuta, **euskara gehiegitan erabiltzen dugu subjektu modura, eta gutxiegitan tresna modura.** Helburu izatetik bitarteko izatera pasata eraginkorragoa izan daiteke.

6. Ez dugu geuk bakarrik hartzen euskara subjektu modura: **gaur egungo sistema berez dago euskararen aurka. Ondorioz, euskaraz zerbait sortzea beti da transgresioa.**

7. Noski, bizi garen lekuan bizi gara, eta ditugun arau sozialak ditugu. **Euskaraz sortutakoa ispilu sozialaren aurrean jarri behar dugu, eta ikuspegi kritikoa izan**, beste edozein sormen-lanetan moduan. Egiten dugun guztia berrikusi behar dugu konstanteki.

LEO BUERIBERI, AINHOA PARDINA
Hizkuntza murriztuen aniztasuna, ikuspegi monoglotatik haratago
2025-01-29

Euskaldunentzako Jabetze Eskola

PLAZA

Aniztasuna abiapuntuko begirada modura hartuta, hizkuntza gutxituen egoera aztertzen hasi, eta hiztunengan arreta jartzen bukatu genuen 2025eko lehenengo saioan, Leo Bueriberi eta Ainhoa Pardina bidelagun. Saioak, ondorio nagusi gisa, gaur egun jada baden eta etorkizunean ezinbesteko errealitatea izango den hizkuntzen eta hiztunen aniztasuna aukera onuragarritzat hartzea izan zuen. Beti ere, hizkuntza gutxitu baten hiztunek gainerako hizkuntzekin izan beharreko harremana konplexua eta askotarikoa izango dela kontuan hartuta. "Hizkuntza hegemonikoak", "harreman asimetrikoak", "harrera komunitarioa"... Bezalako kontzeptuak izan ziren mintzagai.

ZAZPI JAUZI

1. Euskal gizartea eleanitza da, eta gero eta eleanitzagoa izango da. Eta herritarrak ez dira horren kontziente. **Euskal Herrian gaur egun 100 hizkuntza bizi direla, eta etorkizun hurbilean gehiago biziko direla** behin eta berriz esan behar genuke: gure ohiko diskurtsoan integratu behar dugu.

2. Noski, hizkuntza horien arteko harremana ez da simetrikoa, eta bizikidetza gatazkatsua da. Hala ere, hizkuntzen artekoaz baino, hiztunen arteko harremanaz hitz egin behar dugu: Hizkuntzen arteko harremana eraikitzen da ematen zaion erabileraren arabera. Beraz, hiztunak dira beste **hiztunak zapaltzen dituztenak, ez hizkuntzak.** Zapalkuntza horretan, hainbat eta hainbat faktore sartzen dira. Adibiderako, arraza: hona bizitzera datozenei, zuriak ez badira, gaztelania ikasteko esaten diete. Hona etortzen diren zuriei, berriz, errazago esango diete euskara ikasteko.

3. Adi ibili behar dugu hainbat sektore euskaltzaletan zabaltzen ari diren diskurtso arriskutsuekin, arrazismoa eta xenofobia baitute oinarri. **Euskara hizkuntza aniztasunarengatik arriskuan egon daitekeela pentsatzea akats handia da.** Horren atzean estrategia bat dago: errazagoa da zapalduta dagoen pertsona batek bera baino zapalduago dagoen norbait zapaltzea, edo berari errua botatzea, zapaltzaileari baino. Nolabait, egoera hegemonikoan daudenek horrelako mezuak zabaltzen dituzte eta, horrela, hegemoniaren aurka jo beharrean zapalduon artean batak bestea gehiago zapaltzea sustatzen dute.

4. Aurrekoari buelta eman behar zaio, eta argi izan: hizkuntza-aniztasunaz kontziente den, eta hori behar bezala kudeatzeko saiakera egingo duen gizarteak onura asko izango ditu. Jokaleku berri batean egongo da: **gizarte elebidun bat helburu izatetik, euskara ardatz duen gizarte eleanitz bat helburu izatera pasako ginateke.** Euskara, kokagune hegemonikoan; eta gainerako guztiek, bakoitzak bere lekua, modu orekatuan, kudeaketa-sistema errealista baten bidez ordenatuta. Utopia usaina du, baina posible da.

5. Hizkuntzen eta hiztunen aniztasun gero eta handiagoaren arrazoi nagusias euskal herritar berrien etorrera da. Horrekin lotuta, **inmigrazioak onurak dakartzala ari gara behin eta berriz esaten. Baina, ez badakartza ere, zer? Ez daukagu guztiari beti onurak edo probetxua ateratzen ibili beharrik.** Eta, esaten dugunetik haratago, badugu kanpotik datozenengandako interesik? Eta, interesik ez badugu, eskatu diezaiekegu zerbait? Badugu zilegitasunik horretarako?

6. Gauza batzuk gaizki egiten ari gara. Nola euskaldunduko da migrantea, iristen den lekuan, hasiera batean, ez badauka ezta harremanik ere? Pertsona bat iristen den unean, hasiera-hasierako elkartrukeetan, gauza asko gertatzen dira, hizkuntzatik haratago. Eta "gertatzen diren horiek" dira garrantzitsuenak. Prozesua luzea eta konplexua da: lehenengo harremanak sortu behar dira, eta gero etorriko da hizkuntzen kudeaketa. **Harrera ezin da linguistikoa bakarrik izan: komunitarioa izan behar da.**

7. Egiten dugun guztia, egoera zehatzei erantzunez egin behar dugu: egoera errealei erantzun organikoak emanez. Ezin dira hizkuntza-irizpide orokorrak besterik gabe jarri eta betetzen saiatu. Eta printzipio bat izan behar dugu beti gogoan: **hizkuntzek ez diote, berez, elkarri lekurik kentzen, ondorioz, hiztunek elkarri lekurik kendu ez diezaioten egin behar dugu lan.**

IDURRE ESKISABEL
Euskararen biziberritzea eraldaketa sozialeko prozesu luzea da
2025-02-26

Euskaldunentzako Jabetze Eskola

PLAZA

Botereaz, hizkuntza-ideologiaz, demokratizazio-prozesuez... aritu zen Idurre Eskisabel 2025eko otsaileko saioan. Hizkuntzaren alderdi sozialari begiratu zion modu integralean, eta are gehiago ere esan zuen: hizkuntzak ezin dira ulertu dituzten ezaugarri linguistikoak kontuan hartuta bakarrik; hizkuntza bat erabiltzea gertakari sozial bat baita beti. Eta, noski, hizkuntza gutxituen testuinguruan, garrantzia berezia hartzen du aspektu soziala lantzeak.

ZAZPI JAUZI

1. Bai, euskararen biziberritze-prozesua eraldaketa sozialerako prozesu luzea da; izan ere, **"eraldaketa soziala" eta "luze" batera doaz beti**. Gizarte-mugimenduetan lanean ari den orok ondo daki hori: poliki goaz, urrutira heldu nahi dugulako (Beti ere, urgentzia duten auziei iskin egin gabe).

2. Asko entzuten da "kultura soziolinguistikoa" terminoa, baina eufemismo bat izan daiteke: azken finean, hizkuntza-ideologiaz ari gara, bete-betean, eta, ondorioz, botere-harremanez. **Hizkuntza eta boterea ezin dira banatu**. Adibidez: euskara biziberritzeko gizarte praktika berriak sortu behar dira, eta horretarako botere-harremanak itzulikatu behar dira.

3. Terminologiari ez diogu behar besteko garrantzia ematen, eta, krisi garai honetan bereziki, oinarriak berrikusteko edo berresteko garaian, funtsezkoa da. Bi adibide:

- Euskarari dagokionean, zer erabili: "normalizazioa" ala "biziberritzea"? Bada, biak, komunikatu nahi dugunaren arabera. Oinarrian, kontzientzia berbera dago.
- Esaten dugunean "hizkuntzak komunikazio-tresnak besterik ez dira", modu naif-ean jarduteko arriskua dugu. Askoz ere gehiago ere badira hizkuntzak: humano egiten gaituzten "gertakari sozial" garrantzitsuena dira.

4. Hizkuntza beti da praktika bat, eta gizartea eraldatzeko gaitasuna dauka. Adibidez, "klase-igogailuan" gora egiteko sarri erabilitako estrategia garrantzitsuenetarikoa da.
Demokrazia bera, hizkuntzen/ahotsen birbanaketa bat da; beraz, euskararen biziberritzea demokratizazio-prozesu bat da.

5. Terminologiarekin jarraituta, "kolonialismo" termino arantzatsua baliagarria da gure errealitaterako? Agian, Ibai Atutxaren bidetik, barbarizazio-prozesuez hitz egin dezakegu: **kapitalismoaren sistemak "barbaro" bihurtzen gaitu hizkuntza gutxituetakook.** Eta izaera hori naturalizatu egiten dugu, euskara ez dela noranahikoa edo beti ez dela baliagarria barneratuta. Guk daukagun karga da behin eta berriz konbentzitu behar dugula gure burua hori ez dela horrela.

6. Hizkuntza gutxituetakook **hitz-gabetuak eta ahots-gabetuak gaude,** eta hizkuntza-gatazka egoera konstante batean bizi gara. Egoera horren kontziente izan behar dugu, eta ditugun tresnak erabili, behin eta berriz gainditzen saiatzeko.

7. Aurrera begira jarri eta iruditeria berria eraiki behar dugula diogu behin eta berriz. Baina horretarako aurrelanak egin behar dira. Adibidez, ez dugu orain arte hainbat bidegilek egindako lana behar bezala ezagutzen, eta **justizia epistemikoa (narratiboa) behar dugu:** gure genealogia ondo ezagutu gabe, ezin dugu etorkizunera begira jarri.

Xabier Aranbarri (Kulturaz)
Ixiar Garcia (Faktoria)
Uxue Ruiz de Arkaute eta Raul Urkiza (IAK)

Euskaldunentzako Jabetze Eskola

Proiektu euskaltzaleen izaera eta beharra amasgune diren eremuetan eta horietatik at
2025-03-26

PLAZA

Euskarazko kulturgintza ez da sormena bakarrik: sormen hori nola plazaratzen den ere bada. Horretaz aritu ziren Azpeitiko Kulturaz kooperatibako Xabier Aranbarri, Aiaraldeko Faktoriako Ixiar Garcia, eta Izaskun Arrue Kulturguneko Uxue Ruiz de Arkaute eta Raul Urkiza. Euskaraz programatzearen irizpideez, euskal kulturaren erreferentziazko guneez, eta gune horien izaeraz eta izan beharreko harremanez jardun zuten. Kafe antzokiaren formula klasikotik abiatu eta beste pausu bat emateko gogoa sumatu genuen airean.

ZAZPI JAUZI

1. Euskara, euskararen kulturgintza edo euskarazko hedabideak daude era honetako proiektuen oinarrian. Garrantzitsua da abiapuntu hori garbi izatea. Hala ere, garapen bat jasan du horrek: izan ere, euskaraz bizitzeko, **bizitzaren esparru guztietan eragin behar da.** Izan daiteke feminismoa, elikadura burujabetza, kulturgintzaren transmisioa… **Garapen komunitarioa** bada helburu, gizarte eraldaketa helburu duten mugimenduek elkarrekin jardun behar dute.

2. Ai, sormena. Kulturgintza nola plazaratu bezain garrantzitsua da **sormenerako aukerak eta espazioak** erraztea. Euskara-kultura lotura gauzatzen badakigu, baina sortu nahi dutenei bultzada emateko bideak zein diren ez dugu gehiegi ikertu. Horri erantzun bat emateko sortu zen, adibidez, Azpetiko Dinamoa. Eta, adi: kultura ahotik ahora darabilgu, baina zergatik ez dugu “artea” hitza gehiagotan erabiltzen?

3. Aurrekoarekin lotuta, badirudi belaunaldi berriak sortzaileagoak direla. Edo beste modu batera ulertzen duela sormena: beti ohitu gara sortzaileak eszenarioan ikustera, eta beraiengandik distantzia batera egotera. Orain, muga hori lausoagoa da. Eta horrek zuzenean garamatzara parte-hartze mekanismoetara: **kultura-kontsumitzaileak sortzea baino, kulturaren transmisioa (bi norabidetan) biziko dutenekin lan egitea interesgarriagoa da.**

4. Kulturgintzan eta kulturazaletasunean badago dinamika bat, baina belaunaldien arteko transmisioa bermatuta dago? **Begira eskola-kirolari: zergatik ez ditugu kulturgintza gazteenei transmititzeko era horretako bideak eta aukerak?** Sortu ondoren, hedatu eta azaldu egin behar da: kulturgintzaren ziklo osoa bete behar da. Gazteekin egin behar diren mediazio- eta sentsibilizazio-saioek kultur-proiektuek duten garrantzia bera dute.

5. Zein irizpide izan, euskarazko kultur-emanaldiak programatzerako orduan? Batetik, helburua ez da bakarrik publiko euskaldunari gauzak eskaintzea; **publiko berriak sortu behar ditugu.** Horregatik, garrantzitsua da orainarekin konektatzen duten emanaldiak programatzea. **Eta oreka ere garrantzitsua da:** guk nahi dugunaren eta publikoak edo bestelako eragileek eskatzen dutenaren artean dantzan ibili behar dugu.

6. Kultura erreferentetzat duten espazioetan, **bestelako eragileekin saretuta egotea ezinbestekoa da.** Beste proiektu batzuekin elkarlanean jarduteak programazioa aberasten du. Gaur egun ditugun harreman puntualetatik haratago, irizpideetan bat egin eta proiektu komunagoak amestea ere ez dago gaizki.

7. Gazteak erakarri nahian pasatzen dugu bizitza. Hobe genuke, agian, geure buruari ere apur bat gehiago begiratzea. Susmoak: Gehiegitxo profesionalizatu gara, dena eginda emateko joera izan dugu. Hori ez da erakargarria. Beraz: gazteen parte hartzea da jaisten ari dena, ala gu gara trakesten ari garenak?
Belaunaldi berriei eskatzen diegu guk jokatzen genuen modura jokatzeko… eta hori ezin da egin.

Amets Aranguren (Ibil bedi)
Mikel Ayllon (Piszifaktoria)
Ximun Fuchs (Axut)

Euskaldunentzako Jabetze Eskola

Berrikuntzaren kultura, kultura-proiektuetan
2025-05-07

PLAZA

Ikasturteko azkeneko saioan hiru kultura-proiektu izan genituen gonbidatu, eta elkarren argitan irekizioten bidea berrikuntzaren kontzeptuari. Hain zuzen ere, "proiektu" eta "berrikuntza" hitzek kulturaren ekosisteman duten konnotazioez, zentzuaz, eta beharrezkotasunaz jardun zuten. Gertuko testuingurura etorrita, anbizioaren eta handinahiaren arteko mugez, eta berritu beharraren beharrez tradizioa erabiltzeaz ere hitz egin zuten partaideek.

ZAZPI JAUZI

1. Terminologiari begira, "proiektu" hitza erakundeekin lotzen dugu. Hitz teknokratikoa da: erabili beharra dago dirua jaso nahi baduzu; aldiz, "artelan" erabiltzen baduzu, inork ez dizu dirurik ematen. Eta agian komeni da kultur-proiektuei buruz baino, kulturari berari buruz hitz egin. **Jakintza partekatzeko leku bat da kultura, eta ongizatearekin daukan lotura landu beharra daukagu.**

2. Kulturak askapenerako bidea ematen digu, gure historiari lotuta dagoelako. Eta talde baten parte izatea ahalbidetzen digu. Eguneroko bizitzaren, ohikotasunaren, konbentzioaren… parte ez izateko aukera ematen digu. **Kultura eta artea dira gure "esistitzeko aukera" praktikan jartzeko daukagun bidea.**

3. "Berrikuntza" hitzarekin ere kontuz ibili beharra dago. Adibidez, nahi eta nahiez berritzaile izan beharrarena asko ikusten da azkenaldian. Hitzak perbertsio bat dakar, eta modu artifizialean ulertu daiteke, salmentarako estrategia huts bat gogoraraztera ino. **Gizartearen aurrerabidea bera zalantzan dagoen garaiotan berrikuntzaz behin eta berriz aritzea arriskutsua da.**

4. Guk, inork kontatzen ez dituen istorioak kontatzen ditugu. Hori betidanik egin da, eta tradizioarekin du lotura. Baina aldi berean erabat berritzailea da. Gure eginkizuna espazio askeak sortzea da, eta espazio horietan burujabeak izatea. Horretarako gure begirada aldatu behar dugu, eta begirada aldatzea bera da berritzailea.

5. Zerk bultzatzen gaitu euskaraz mintzatzera? Arteak. Arte eta kultura sendo batek. **Ez badugu gurea den arte bat, ez dago euskararik.**

6. Une honetan ez dugu kultur-erakunde nazionalik. Ez dago norabidea markatuko duen erakunderik, eta hori egiteko gaitasuna dutenei ez zaie interesatzen. Kulturak eraikitzen du komunitatea. **Kultura da komunitatea josten duen tresna.**

7. Berritzailea izatea, adibidez, BEC edo Nafarroa Arena betetzea da? Anbiziotsuak izan behar dugu, baina anbizioa ondo kanalizatzen jakin behar dugu. Hau da, **ez dugu BEC betetzeko anbiziorik behar, gure kultur-ekosistema aberasteko baizik.**